



Arartekoaren 2026NI-3374-25 Ebazpena, 2026ko ekainaren 25ekoa. Honen bidez, amaitu du bere jarduera Irun udalerriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana izapidetzearen harira, alardean emakumeen berdintasunerako eskubidea bermatzearren.

Aurrekariak

1. Irungo eremuko emakumeen bi elkartek kexa bat aurkeztu zuten Arartekoan, ez baitzeuden ados Irungo Udaleko Berdintasunerako V. Plana izapidetzearekin, zehazki, udalerriko jaietan, batik bat, alardean, emakumeen berdintasunerako eskubidea bermatzeko beharrarekin.

2. Erreklamazioaren jatorria da zenbait irregulartasun egon direla Irungo Udalaren Berdintasunerako V. Plana izapidetzeko prozesuan. Elkarte kexagileek diote ezen, Bozera maileen Batzarrak eta Berdintasun Batzordeak planaren hasierako zirriborroa aztertzeko 2022ko abenduaren eta 2025eko azaroaren bitartean egindako bilkuren ostean, tokiko Udalbatzak erabaki zuela dokumentu horretatik kentzea udalerriko jaietan emakumeen berdintasunerako eskubidea bermatzeko beharrari buruzko erreferentziak. Elkarte kexagileek adierazten dutenaren arabera, erreferentzia horiek kendu ondorengo Berdintasunerako Planaren zirriborroa izango litzateke Udalbatzari aurkezteko eta behin betiko onesteko proposatutako dokumentua.

3. Elkarteek adierazten dute udalerriko jaietan emakumeen berdintasunerako eskubidea bermatzeko beharrari buruzko erreferentzia horiek berariaz jaso zirela herritarrek parte hartzeko prozesuaren azken dokumentuan, Emakunderen 2023ko urtarrilaren 25eko nahitaezko txostenean eta azken udal-txosten teknikoan.

4. Kexa izapiderako onartu ostean, Arartekoak informazioa eskatu zion Irungo Udalari. Erantzun-txostenean, Irungo Udalak xehetasunak eman zituen prozesuari eta testuinguruari buruz, bai eta izapidetze horren mugari nagusiei buruz ere. Hala ere, ez zituen aipatu Arartekoak eskatutako zenbait parametro juridiko (zehazki, planaren barruan udalerriko jaietan, batik bat, alardean, emakumeen berdintasunerako eskubidea bermatzeko beharrari buruzko erreferentzia eztabaidagarria). Gainera, Udalak bere erantzunean azpimarratu zuen Udaleko Osoko Bilkurak oraindik ez duela onetsi Plana, eta dagokion informazio-batzordeak ez duela eman irizpenik.

5. Jarraian, Udalaren erantzunaren alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

- Berdintasunerako V. Plana egiteko laguntza teknikoa emateaz arduratzen zen enpresak aintzat hartu behar zituen parte hartzeko prozesuetan egindako ekarpenak eta proposamenak.



- Enpresak zirriborroa egin zuenean, Udalak testua aurkeztu zuen politikariek eztabaidatu eta aztertu zezaten. Eztabaida horretan, honako hauek hartu zuten parte: alderdi politikoetako bozeramaileek, berdintasun-batzordeko ordezkari politikoek eta berdintasuneko ordezkariak.
- Espazio horretan egindako eztabaidaren ostean, 2022ko abenduaren 12an, Bozeramaileen Batzarrak adostu egin zuen Irungo Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren testua, eta parte hartzeko prozesuaren ondoriozko testua gehitu zitzaion eranskin gisa.
- 2022ko abenduaren 16an, Udalak Emakunderi bidali zion dokumentua. Organismo autonomoak 2023ko urtarrilaren 24an egin zuen nahitaezko txostena.
- Azaroaren 5ean, alkate andreak jakinarazi zuen berriz heldu nahi ziola espedienteari, Bozeramaileen Batzarrak onets zezan. Jarraian, Berdintasun Batzordera bildu zen, eta 2025eko azaroaren 19an, gaia informazio batzordearen mahai gainean geratu zen.

6. Erantzun-txostenaz gain, Irungo Udalak honako hauek aurkeztu zituen: Bozeramaileen Batzarraren bi akta, Emakunderen nahitaezko txostena eta Berdintasunerako V. Planaren zirriborroa (parte hartzeko prozesuaren ondoriozko testua eranskin gisa zuela). Emakunderen nahitaezko txostena aztertzean, deigarria da ezen, Udalak zirriborroa Emakundera 2021eko abenduaren 16an bidali zuela adierazten duen arren, erakunde horren txostenean adierazten dela aurretiaz jaso zela, hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 14an. Desadostasun hori ikusita, Udalak Emakunderi argitu behar izan zion berrikusteko behin betiko dokumentua 2021eko abenduaren 16koa zela.

Erakunde honek beharrezko egitateak eta zuzenbideko oinarriak dituela iritzita, Arartekoak gogoeta hauek egiten ditu:

Gogoetak

Berdintasunerako udal-planei aplikatu beharreko arau-esparrua

7. Euskal administrazio eta erakunde publikoek derrigorrez egin behar dituzten berdintasunerako planak, berdintasun-helburua politika publiko guztietan txertatzen dela bermatzeko tresnak baitira. Udalei dagokienez, agindu horren oinarria da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 16.3 artikulua (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onetsitako testu bategina. (aurrerantzean, Berdintasunerako Euskal Legea), zeinak betebeharrak hori ezartzen baitie berariaz tokiko erakundeei.

8. Berdintasunerako planak egiteko betebeharra da udalek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko politikak sustatzeko eta ekitatea bultzatzeko duten aginduaren adierazpen zehatza. Hala xedatzen da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.27) artikuluan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 28. artikuluan (aurrerantzean, TAOL). Gainera, Irungo Udala Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako Gutunari atxiki izanak sendotu egiten du berdintasuna lortzeko administrazio honek zuen zeregina. Gutun horrek xedatzen duenaren arabera, herritarrekiko hurbiltasuna dela-eta *“representan los niveles de intervención más adecuados para combatir la persistencia y la reproducción de las desigualdades y para promover una sociedad verdaderamente igualitaria”*. Ildo horretan, berdintasunerako udal-planak tresna estrategikoak dira tokiko eremuan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bermatzeko.

9. Berdintasun planak egiteko prozedurari dagokionez, Berdintasunerako Euskal Legeak hainbat elementu eta printzipio xedatzen ditu, eta horiek bete egin behar dira planak kudeatzean eta egitean. Ildo horretan, bi kontu nabarmentzen dira; batetik Legearen 16.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, ezarri egin behar dira: *“... feminismoaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituek, kolektiboek, elkarteek eta eragile sozialek parte hartzeko bideak, batez ere herritarrei zuzendutako planetan”* Horrez gain, Legearen 16.6 artikulua arabera, planak onetsi aurretik: *“Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak (...), haiei buruzko txostena eman behar du, zehazteko ea plan horien edukiak bat datozen lege honetan ezarritakoarekin eta Eusko Jaurlaritzak(...), onetsi behar duen plan orokorrean jasotako esku-hartze ildo eta jarraibideekin.”*

Irungo Udalaren jarduketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana egiteko

10. Irungo Udalak 2021eko abenduaren 20an abiarazi zuen Berdintasunerako V. Plana egiteko prozesua, eta horretarako, enpresa baten laguntza teknikoa jaso zuen. Bozeramaileek eta udal-politikarien ordezkariak eztabaidatu egin zuten herritarrek parte hartzeko prozesuaren ondoriozko testua. Eztabaida 2022ko abenduan amaitu zen, Bozeramaileen Batzarrak testu bat adostu baitzuen.

11. Bozeramaileen Batzarraren aktan jasota dago, besteak beste, erabaki zela herritarrei begira, udal-jardueraren erronketako baten idazketa aldatzea; zehazki, emakumeek jaietan berdintasunez parte hartzeari buruzkoarena. Aldaketa hori ikus daiteke Irungo Udalak Arartekoarekin partekatu duen Berdintasunerako V. Planaren edukia aztertuz gero. Zehazki, Bozeramaileen Batzarrak onetsitako planaren



artikuluak eta herritarrek parte hartzeko prozesuaren ondoriozko dokumentuaren eranskina erkatuz gero, ikusten da lehenengoak honako hau dioela: *"12. Proponer medidas para prevenir la violencia y la discriminación que sufren las mujeres en el ámbito festivo"*; eta, herritarren proposamenak, berriz, honako hau: *"12. Proponer medidas para prevenir la violencia y la discriminación que sufren las mujeres por razón del alarde"*.

12. Irungo Udalak 2023. urtearen hasieran jaso zuen Emakunderen nahitaezko txostena. Espedientea etenik geratu zen (erakunde honi, ordea, ez zaio jakinarazi zergatik ez den ezer egin) harik eta Alkatetzak 2025eko azaroan prozesuari berriz heltzeko asmoa adierazi zuen arte. Horretarako, Berdintasun Batzordea egiteko deia egin zuen. Gaur egun, gaia informazio-batzordearen mahai gainean dago. Batzorde horiek udal-korporazioen barne-funtzionamendurako organoak dira, ez dute erabakiak hartzeko eskumenik, eta honako helburu hau dute: *"osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko"*. Hala xedatzen dute TAOLen 20.1.c) artikuluak eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123.1 artikuluak. Ondorioz, plana onetsi gabe dago oraindik ere.

Arartekoaren esku-hartzearen mugak plangintzaren esparruan

13. Plangintza administratiboaren esparruan, ez dago emaitzak izateko legezko betebeharririk jarduneko administrazioarentzat. Izan ere, planak dokumentu estrategikoak dira, eta horien helburua ez da arauak ezartzea edo gai bat zehaztasunez ebaztea, baizik helburu eta neurri batzuk finkatzea aurretiaz definitutako helburuak epe jakin batean lortzeko. Horretarako, adierazleen sistema bat ezartzen da. Horren bidez, planaren indarraldia igaro ondoren, proposatutako helburuak benetan zenbateraino bete diren ebaluatu daiteke. Helburu horiek ez dira berezko betebeharrak izango, baizik eta hobekuntza-helburuak.

14. Testuinguru horretan, Arartekoaren esku-hartzeak ezin du ordeztu administrazioaren diskrezionalitate-tartea kasuan kasu erabakia hartu behar duen udal-organoak egokiagotzat edo desiragarriagotzat jotzen dituen helburuak zehazteko orduan, ez eta, horiek hobeto lortze aldera, ezar ditzakeen neurriak zehazteko orduan ere, berdintasunaren arloko printzipio orokorrak eta ordenamendua betetzen diren neurrian. Administrazioak berdintasun planak artikulatzeko modua zalantzan jartzen duten kexen aurrean, erakunde honek egiaztatu besterik ez du egin behar plan horiek egiteko jarraitutako prozedura



legean ezarritakora egokitu dela eta gorago aipatutako estandarrak betetzen dituela.

15. Hain zuzen ere, plangintzarako tresnak, arauzkoa ez dena bere izaeragatik beragatik, ez du emaitzak izateko betebeharrak zuzen edo zehatzik ekartzen berekin. Haren xedea da lehentasunezko helburuak finkatzea eta horiek sustatzeko neurri zehatzak eta estrategiak ezartzea, epe jakin batean helburu horiek bete ahal izateko. Ildo horretan, administrazioak badu diskrezionalitate-tarte bat xede horretarako estrategia eta neurri egokiak ezartzeko, eta erakunde honek ezin ditu horiek zalantzan jarri legeko prozedura-jarraibideak bete badituzte eta interes publikokoak badira.

16. Kasu honetan, Irungo Udaleko Berdintasunerako V. Plana prestatzeko prozesuan, bete egin da, formalki behintzat, Berdintasunerako Euskal Legeak xedatutakoa prozedurazko funtsezko elementuari dagokionez; hau da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta feminismoaren arloko gizarte-eragileek parte hartzea. Argitu behar da, testuinguru horretan, parte hartzeko prozesuak ezartzeko betebeharrak ez duela esan nahi bide horiek behartzen dutenik prestaketa-prozesuan parte-hartzaile bakoitzak adierazitako irizpidea betetzera.

Herritarren parte-hartzearen garrantzia eta irismena planak egitean

17. Edonola ere, gogorarazi behar da prozedura horietan legez ezarritako gizarte-eragileen parte-hartzea faktore erabakigarria dela legezketasun juridikoari eta publikoari begira, bai eta berdintasun planek arrakasta izateko ere; eta hala ezartzen du Emakunderen [Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gidak](#). Dokumentu horrek sustatzen du parte-hartzea txertatzea diagnostikoaren fasetik zirriborroa idaztera arte, eta azpimarratzen du kontrastea egitea garrantzitsua dela, udalak azal dezan nola txertatu diren elkarte-sarearen karpenak, edo, halakorik txertatu ez badu, zein izan diren ekarpen horiek baztertzeko arrazoiak.

Berdintasun plana egitean izandako berandutzearen ondorioak

18. Gainerakoan, kasu honetan, atentzioa ematen dio erakunde honi Irungo Udalaren berdintasunerako plan berriaren behin betiko onestean izandako berandutzeak. Aurretiko plana 2021ean amaitu zen, eta Berdintasunerako V. Planaren zirriborroak bost urteko indarraldia jasotzen du, 2023tik 2027ra. Horrek esan nahi du, plana behin betiko ahalik eta arinen onesten bada ere, urte eta erdi eskas baino ez litzatekeela geratuko testuak jasotzen dituen 81 ekintzak martxan jartzeko planaren indarraldirako aurreikusitako epearen barruan.



19. Ildo horretan, planek arauzko izaerarik ez badute ere, ezin da ukatu horiek onestean berandutzeak —aztergai dugun kasuan gertatu den moduan— benetako eragina izan dezakeela herritarren eskubideetan, eta, zehatzago, udalerriko emakumeen eskubideetan. Eta ondorioz, legean aurreikusitakoaren aurka, emakumeei denbora luzez ukatzen zaie toki-esparruan gizonetikiko berdintasuna bermatzeko tresna estrategiko bat. Gainera, berandutze horrek agerian uzten du udalaren eginbidearen gabezia, eta horrek ahuldu egin dezake udal-erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko duen borondatean herritarrek duten konfiantza, bereziki plana egitean parte hartu zuten gizarte-eragile eta kolektiboen artean.

Alardean berdintasuna bermatzeko udal-betebeharra

20. Azkenik, Arartekoak irizten du aztergai honetan ezin dela bazter utzi emakumeek jaietan, alardea barne, gizonetikiko berdintasun-baldintzetan parte hartzeko duten eskubidearen garrantzia. Emakundek kontu hori jorratzen du zuzenean Irungo Udaleko Berdintasunerako V. Planaren zirriborroa baloratzeko txostenean; izan ere, aipatzen du alarde parekideak izan beharko lukeela Irungo Udalak planean kontuan hartu beharko lituzkeen elementuetako bat: *“gure ustez, (...) (e)zinbestekoa da, alarde parekidearen inguruan herrian azaltzen diren erronkak eta Irungo Udaletik eman ahal zaizkion erantzunak V. planaren dokumentuan zehaztea”*

21. Egia da Irungo Udaleko Berdintasunerako V. Planaren egungo proposamenak erreferentzia egiten diola jai-eremuko berdintasunari, baina udalerrri horren kasu zehatzean, egokia litzateke, horrez gain —Emakundek planari buruzko txostenean ere adierazten duen moduan—, plangintza-tresna horren barruan zehaztea berdintasun hori bereziki alardean bermatu egin behar dela, kontuan izanda espazio horretan emakumeen parte-hartzeari buruz historikoki egon den eztabaida.

22. Ildo horretan, Arartekoa bat dator Emakunderen irizpidearekin udalak alardean berdintasuna bermatzeko duen betebeharrari dagokionez; eta, erakunde honek behin eta berriro adierazi duen moduan, ezinbesteko baldintza da hori udalerrri horretan emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea bermatzeko funtsezko lege-agindua erabat betetzean aurrera egiten jarraitu ahal izateko, bai eta sexu-diskriminazioaren debekua errespetatzeko ere. Funtsezko konstituzio-agindua da (EKren 14. eta 9.2 artikulua), eta horren arabera, botere publiko guztiek — baita toki-mailakoek ere— agindu hori bete behar dute beren jarduketaren guztietan.



Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzeko Legeak (3/1985 Legea, otsailaren 27koa) 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak ondorio hauek helarazten ditu

Ondorioak

1. Irungo Udaleko Berdintasunerako V. Plana egiteko prozesuan bete egin dira, formalki, prozedura egokiari buruzko lege-manuak. Gainera, plangintza-tresna hori arauzkoa ez denez, Irungo Udalak diskrezionalitate-tartea du udalerrian berdintasun-helburuak eta horiek lortzeko neurri eta estrategia egokienak zehazteko.
2. Hala ere, Arartekoak adierazten du Irungo Udaleko Berdintasunerako V. Plana onestean izandako berandutzeak —zirriborroak proposatutako indarraldiaren zatirik handiena agortu du jada— nabarmen murrizten duela plana aplikatzeko epe efektiboa.
3. Edonola ere, Arartekoak gogorarazten du toki-erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza bermatzeko konstituzio-agindua bete behar dutela beren jarduketa guztietan. Horretarako, garrantzitsutzat jotzen du Irungo Udalak kontuan hartzea jai-esparruko berezko adierazpenetan —alardea barne— emakumeen parte-hartze berdinzalearen helburua Berdintasunerako V. Planean berariaz sartzeari buruzko irizpidea.

Ebazpen honen bidez, Arartekoak bere jarduera amaitzen du eta espediente itxi eta artxibatzea erabakitzen du.